

FITXA: 207 - GIPUZKOA - Tokiko energia komunitateei lotutako autokontsumo kolektiboko araubideko udal-estalkietako edota estalki pribatuetako eguzki-instalazio fotovoltaiakoak ezar daitezen sustatzeko gauzazko dirulaguntzak.

Nori zuzendua: Gipuzkoako Lurralde Historikoko 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak edo lurralde eremuak.

Deialdia: GAO - Gipuzkoako Aldizkari **Deialdiaren data:** 2026/03/11
Ofiziala

Sarbide-esteka:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/hasiera>

Erreferentziazko araudia: 2026ko otsailaren 24ko erabakia -
<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/03/11/c2601513.pdf>

Eragin eremuak: Ingurumena

Zenbatekoa: 481.500,00 €

Aurkezteko lehen eguna: 2024/03/12

Aurkezteko azken eguna:: 2026/04/13

Aurrerakina: Ez da zehaztu

Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu

Gehieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu.

Gutxieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu.

Laburpena

Gipuzkoako Lurralde Historikoan 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerri edo lurralde eremuetan tokiko energia komunitateei lotutako autokontsumo kolektiboko araubideko udal estalkietako edota estalki pribatuetako eguzki instalazio fotovoltaiakoak ezar daitezen sustatzeko gauzazko dirulaguntzak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Aurkezten diren proposamenetarako, azkenean oinarri hauetan ezarritakoaren arabera erabilgarri dagoen aurrekontuaren arabera hautatuak badira, Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusiak honako zeregin hauek hartuko ditu bere gain:

- Gauzatu beharreko eguzki-instalazio fotovoltaiakoen diseinua eta dimentsionamendua.
- Eguzki-instalazio fotovoltaiakoekin lotutako obrak eta autokontsumo partekatua martxan

jartzeko beharrezko zerbitzuak kontratatzea.

- Obren zuzendaritza teknikoa eta instalazioak behar bezala eta osorik gauzatzeko behar diren izapide guztiak betetzea.
- Dirulaguntza honen xede diren obra eta zerbitzuen finantzaketa osoa.

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Ez da zehaztu

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntzaren xede den jarduketak edo proiektuak hasi gabe egon beharko du deialdiaren urteko urtarrilaren 1ean, eta urte horretako bertako ekitaldi ekonomikoaren barruan bukatu beharko du. Edonola ere, esandako jarduera edo proiektu hori izan liteke proiektu luzeago baten etapa bat (lehenago hasitakoa edo geroago amaituko dena).